



# **UDAKO ARTE** ERAKUSKETA

**LEKEITIO 2023**

**Uztailaren 11tik 16ra**

**Kepa Bilbao Busto**

**Topaketak eta egoerak**

**Uztailaren 24tik 30era**

**Enrike Zubia Elordui**

**Ur eta lur**

**Uztailaren 31tik abuztuaren 6ra**

**Maite Saavedra Ordorika**

**Miren Agur Meabe Plaza**

**Terra**

**Abuztuaren 7tik 13ra**

**Juan Isasi Urdangarin**

**Lekitto luzetara**

**Abuztuaren 14tik 20era**

**Irene de Madrazo Abad**

**Insect extinction?**

**Abuztuaren 21etik 27ra**

**Aitor Arrizabalaga Txurruka**

**Harria, zura eta ura**

# Uztailaren 11tik 16ra

# Kepa Bilbao Busto

## Topaketak eta egoerak


### KEPA BILBAO Busto (Portugalete, 1969)

Arte Ederretan lizentziatua, Ikus-entzunezkoen eta Teknika Grafikoen espezialitateetan. 25 urte baino gehiago daramatza irakaskuntzan, argazkilaritza eta ikus-entzunezkoen irakasle moduan, batez ere Batxilergo artistikoan.

Erakusketa honetarako erabilitako irudi guztiak 2020 eta 2023 urteen artean egin dira. Teknikari dagokionez, era digitalean manipulaturako argazkiak dira. Manipulazio horrek errealitatearen eraldaketa dakar. Topaketa eta egoera berezi batzuen ostean, irudien protagonistak aldatu egiten dira. Ezer ez da gauza bera gure errealitateetik harago doan zerbaitekin kontaktua izan ondoren. Pertsonen aurpegia desagertu egiten da eta naturgunez betetako hutsune bakarra geratzen da. Gizakiaren esentzia desintegratu egiten da (batzuetan itzala baino ez da geratzen) eta naturak bere espazioa berreskuratzen du. Hori COVID-19ak sortutako pandemian gertatu zenaren metafora bat izan liteke... Eta, jakina, topaketa horiek atzemateko ezinbestekoa da ikuslearen begia, argazki-kameraren edo telefono mugikorraren objektiboaren bidez.

### ERAKUSKETAK

- 1991tik gaur egun arte hainbat erakusketa kolektibo zein banakakotan parte hartu du Euskal Herrian (Iruñea, Uharte, Bilbao, Getxo, Mungia, Portugalete, Barakaldo, Gasteiz, Zarautz, Hondarribia,...) eta Italian (Ravenna, Roma, Grottaferrata,...).



# Uztailaren 24tik 30era

# Enrike Zubia Elordui

## Ur eta lur

### **ENRIKE ZUBIA ELORDUI (Bermeo, 1947)**

Bere jaioterriak, Bermeo, eragina izan du bai bere lanean eta bai landutako gaietan. Zubia, lurraz eta itsasoaz elikatzen da, euskal portuez eta bertan dagoen jendeaz. “Ur eta Lur”, bere jatorri eta inspirazio iturri da. Pertsonak eta paisaiak irudikatzea du gustukoaren pintzela eskuartean duenean. Itsasoa eta luraren arteko harremana sentitzen du, eta margolan eta eskulturen bidez transmititzen saiatzen da.

Gaur egun, pintura eta eskultura lan zabala dauka hainbat kolekzio pribatu eta publikotan, Euskal Herriaz gain, Espainia, Frantzia, Portugal, Italia, Irlanda, AEB, Brasil, Kanada, Holanda, Belgika, Polonia, Txile, eta abarren aurki daitezke bere artelanak.

### ERAKUSKETAK

- 2016/ Bilboko Itsasadarra Itsas museoan.
- 2017/ Madriliko Euskal Etxean.
- 2018/ Getxoko Torrene aretoan, Bilboko Ilustre Colegio de la Abogacian eta Mungiako Torrebillela aretoan.
- 2019/ Bilboko El Patio estudioan.
- 2022/ Bermeon Nestor Basterretxea aretoan eta Mundakako kultur etxean.



# Uztailaren 31tik abuztuaren 6ra

# Maite Saavedra Ordorika

# Miren Agur Meabe Plaza

## Terra

### MAITE SAAVEDRA ORDORIKA (Mexiko, 1963)

Hogei urtetik gorako trebakuntza dauka argazkilarari profesional gisa. Bere lanaren ardatzak abstrakzioa eta kolorea dira. Pinturatik eta arkitekturatik hurbil, bere argazkien lengoaiak estetikara jotzen du konkretutasunetik abiatuta, baina zatikaturik, abstrakzio puruena lortzeagatik. Koloreak, testurak, argilunak, denak dira elementu plastikoak. Errealitatea desitxuratzeko perspektiba bitxiak. Sintesia eta esentzia dira bere irudiak eraikitzeko oinarriak.

### MIREN AGUR MEABE PLAZA (Lekaitio, 1962)

Helduentzat nahiz haur eta gazteentzat idazten du. Kritikaren saria jaso zuen 2001ean eta 2011n, *Azalaren kodea* eta *Bitsa eskuetan* poema-liburuengatik; eta Euskadi saria hiru aldiz *Itsaslabarreko etxea* (2002), *Urtebete itsasargian* (2006) eta *Errepidea* (2011) gazte-nobelei esker. 2020an argitaratu zuen *Nola gorde errautsa kolkoan* poema-liburua, Espainiako Poesia Sari Nazionala. Itsasoa betidanik agertu da bere poesiagintzan. Euskaltzain osoa da.

\* Irekiera-egunean, 20:00etan, poema-irakurketa egingo du Meabek, Francisco Moroteren biolontxeloak lagunduta.

### ERAKUSKETAK

- 2018/ “Ametsak artaditik”, Olmeda de las Fuentes-ko Udala, Madril.
- 2009/ INICO argazki-lehiaketako finalista, Chapultepec-eko parkeko galeria irekia, Mexiko.
- 2003/ “Zurumurrak”, KIN galeria eta Playa del Carmenen, Mexiko.
- 1999/ Gómez Pedrosa eta Fernández arkitektoen bulegoa, Mexiko
- 1997/ Holguín kultur etxea, Kuba.
- 1996/ Sor Juanaren Klaustroko Unibertsitatea, Mexiko.
- 1996/ Taxco kultur etxea, Mexiko.





# Abuztuaren 7tik 13ra

# Juan Isasi Urdangarin

## Lekitto luzetara

### JUAN ISASI URDANGARIN (Bilbo, 1959)

90eko hamarkadan hasi zen margozten, Gasteizen, bere aisian. Juanjo Sampedro, Juan Arroyo eta Evencio Cortina izan ziren bere lehenengo arte-irakasleak.

2015etik Euskal akuarelarien elkarteko kidea da. Asko ikasten du bere kasa baina aukera izanez gero maisu handiekin ere ikasten du. 2015etik akuarela-mintegiak egin ditu Keiko Tanabe-rekin eta baita Idoia Lasagabaster, Jose Luis López “Kubi” eta Frutos Casado de Lucas-ekin. Michal Jasiewicz eta Igor Sava akuarelista handiekin ere ikasteko pribilegioa izan du.

Ikusten duenaren ikuspegi bat margozten saiatzen da, argi ezberdinekin gai bera eraldatzeko eta mila zertzelada eta irudi ezberdin emateko duten ahalmena bilatzen du beti, margolariaren begiradaz.

### ERAKUSKETAK

- 2015-2016-2018/ “Lekeitio, ura eta kolorea”, “Gran Viatik Arranegira” eta “Lekittotik Lekittora”, Lekeitioko Barandiaran aretoan.
- 2015etik 2019ra/ Euskal akuarelarien elkartearen eguberritako erakusketak, Bilboko Lumbreras aretoan.
- 2016/ Euskal akuarelarien elkartearen erakusketa, Ordiziko Barrena kultur etxean.
- 2017/ Euskal akuarelarien elkartearen erakusketa, Algortako Torre aretoan.
- 2017-2018/ “Obras de Juan Isasi”, Neguriko La Estación tabernan.
- 2018/ “Copa Gitana” belauntzi-lasterketaren inguruko erakusketa, Getxoko Club Marítimo del Abra-RSC.
- 2018/ 6ª trienal internacional de acuarela de Colombia (Lehen Saria), Museo Bolivariano de Arte Contemporáneo.
- 2020/ “Akuarelaren Argia”, Lekeitioko Eskolape aretoan.



# Abuztuaren 14tik 20ra

## Irene de Madrazo Abad

### Insect extinction?

#### **IRENE DE MADRAZO ABAD (Bilbo, 1980)**

Irenek diziplina anitzeko artistatzat du bere burua. Bere ibilbidea artearen munduan zeharkako flautarekin hasi zuen, baina txikitatik eta amak gidatuta, pintura eta marrazketa ikasten hasi zen. Musika ikasketak amaitu ondoren, EHUko Arte Ederretako Fakultatean sartu zen eta Mexikoko UNAMen amaitu zituen ikasketak. Bilbora itzuli zenean, “Erlekume” sortu zuen, hainbat dinamika, musika eta pintura uztartuz.

Gaur egun, proiektu kolektiboak eta indibidualak egiten ditu, soinuak zein pinturazko sorkuntza-prozesuez gozatuz eta edertasun eta originaltasun handiko obrak erakutsiz.

#### ERAKUSKETAK

- 2017/ “Que será, será...”, Bilbon.
- 2019/ “Sonidos pintados”, Bilboko BIADen.
- 2021/ “Mujeres, entre luces y sombras”, Granadan.

## LEKEITIOKO BIZITZA ETA JAIA



## INSECT EXTINCTION?



# Abuztuaren 21etik 27ra

# Aitor Arrizabalaga Txurruka

## Harria, zura eta ura



### **AITOR ARRIZABALAGA TXURRUKA (Mutriku, 1959)**

1981ean Filosofia eta Letretan lizentziatu zen Deustuko unibertsitatean. Ikasturte askotan plastika, pintura eta argazkigintza ikastaroak eman ditu, baita hainbeste ikastarotan parte hartu ere.

1988tik 2022ra arte irakaskuntza publikoan lan egin du, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaiako hainbat institututan, iaz aurre-jubilatu zen arte. 2014tik Bilboko La Taller grabatu eskolako kide da. Pintatzeko eta sorkuntzarako zaletasuna lagun izan du beti, gaur arte.

### ERAKUSKETAK

- 2023/ "Behar den bezela" erakusketa kolektiboa, Eibarko kultur etxean.





## lekeitioko udala

### **Eskolape aretoan**

18:00etatik 21:00etara  
gehi artistak zabaltzen duen orduetan